

BIL TA GARBI

2021 urteko BILDUMA

Etxe hondakin eta antzekoen kudeaketa zerbitzu publikoa bitan partekatua da :

- **bilketa** Euskal Herria Hirigune Elkargoak eta Béarn des Gaves herri elkargoak egiten dute
- **tratamendua** Bil ta Garbi sindikatuak eremaiten du bi kolektibitate kide horien kondu.

Sindikatuak hondakin zonbaitzuen **garraioa** kudeatzen du ere (hondakindegia, transferentzia kaiak...), baita **balorizazio** eta **birziklatze** sareak eta hondakin jatorrizko murrizte ekintzak ere bai. Lurraldeko **ekonomia zirkularren** dinamika animatzen du, baita **hondakin geldoen** antolaketa, 2018an beregan hartu zuelakotz hautuzko kompetentzia hori.



Etxe hondakinak Canopiara eramandak dira



Lanjerusak ez diren hondakinaren lurperatze zentroa



Hondakin geldien biltze gunea



Biogasaren balioztatze energetikoa



Hondakindegia



Berziklagarrien / etxe-hondakinaren lekualdatzeko



Lurralde bereizte zentroa



Hondakin Berdeen Bilketa Gunea

211

herri

332 608

biztanle

214 066 t

etxe hondakin eta antzekoak



44%

etxe hondakinak



42%

hondakindegietan



14%

bilketa selektiboa

644

etxe hondakin ekoiztuak biztanleka

68%

balorizazio tasa orokorra

23

hautetsi arduratuak

105

funtzio publikoko langile

Ekonomia zirkularrean engaiatua den lurraldea



Hondakinen murriztetik beren baloraziora, Bil ta Garbik duela 15 urte eragiten du ingurumenaren babesaren alde. Baliabideen xahuketaren kontra jotzen du hondakinen kudeaketa optimizatuz eta ekonomia zirkularrean engaiatuak diren eragileak lagunduz.

2021ko irailaren 16an, Parisen, Transizio Ekologikoaren Agentziak (ADEME) labelizatuak izan diren lehen kolektibitateeri eman zien "Zirkular ekonomia" ezagupena. Frantzia osoan atxikiak izan ziren 16 kolektibitateen barne, Bil ta Garbi eta bere lurraldea ezagutua izan da "ekonomia zirkularrean alde engaiatua".

Aktibitatearen adierazleak

	Tonak	Emaiatzak	2020/2021ko emaitzen bilakaera	Balorizazio tasa
Etxe-hondakinak	93 100	280 Kg/biztanleka	+1%	54%
Bilketa selektibea	30 900	93 Kg/biztanleka	+8%	93%
Hondakindegietako hondakinak	90 066	271 Kg/biztanleka	+5%	73%
OROTARA	214 066	644 Kg/biztanleka	+3%	68%

Horien barne :
 %34 balorizazio organiko
 %31 materiaren balorizazio
 %3 balorizazio energetiko

Kantitate orokorrak emendatzen dira 2021an, bilketa selektiboaren goititze handi batekin, aitzineko urtea krisi sanitarioak azkarki hunkitu zuelarik. Finean, biztanleka %3ko emendaketa osatzen du, 644kg etxe hondakin eta antzekorekin (EHA) batazbestekoz. Etxe hondakin eta antzekoen (EHA) balorizazio tasa egonkorra gelditzen da, %68 hondakin balorizatuekin.

Finantzaren adierazleak

Funtzionamendu gastuak	Funtzionamendu diru sartzeak	Inbestimenduak
33,3 M€	35,9 M€	3,9 M€

Bil ta Garbik eramaiten duen zerbitzu publikoko misioa bere kide dituen kolektibitateek ordaintzen dute gehien bat, berek beren aldetik herritarrengandik eskuratzen dutelarik Etxe Hondakinen Kentze Zerga eta Zerbitzu zerga pizgarria. 2021an, inbestimendu nagusiak izan dira Mendixkako Landierik Gabeko Hondakinen Biltegiatze Instalazioko bigarren kutxatilararen eraikuntza (1,2M€), eta suteen kontrako segurtasun obren finantzaketaren bukaera (1 M€ baino gehiago). Ohartaraztekoa, erosiak izan direla 500 K€ kamioi, iraulki eta programa logistika zerbitzuarentzat.



BALORIZAZIOA eta tratamendua

Etxe-hondakin errefusen balorizazioa

Etxe-hondakinak
93 100 t
280 kg/ biztanleka



Canopiako Balorizazio Organikorako
Unitatea (BOU)
76 805 t



Mendixkako Balorizazio Organikorako
Unitatea (BOU)
16 295 t



Burdinkeria
1 219 t



Konposta
21 956 t



Errefusak
46 679 t



Elektrizitatea
11 395 MWh



Berotasuna
6 772 MWh

Bilketa selektiboen bereizketa

Berina
16 245 t
49 kg/ biztanleka

Papera eta etxe-estalki
birziklagarriak
14 655 t
44 kg/ biztanleka



CANOPIA
bereizketa-zentroa



Paperak
7 135 t



Kartoi finak
989 t



Janari-brikak
120 t



Altzairua
622 t



Plastikak
1 317 t




Aluminioa
67 t



Bereizketa errefusak
3 382 t
(24%)

Hondakintegietako hondakinak eta beren balorizazioa



- Lurperatzea
- Balorizazio organikoa
- Materiaren balorizazioa
- Balorizazio energetikoa

2021-2026 HONDAKIN EKINTZA PLANA

Lurralderako xedea

2015-2020 epeko ingurumenaren politika zehazten zuen Ekintza Estrategikoen Programaren segidan, hautetsiek estrategia horren erreberriketa landu dute 2021-2026 Hondakin Ekintza Planoa gauzatzuz. Bide orri honek, hondakinen beti gehiago murriztu eta balorizatzeko, garatzekoak diren ardatz eta ekintzak aurkezten ditu.

03

Landare hondakinen murrizketa eta kudeaketa
SUSTATU

04

Botagaia denetik ateratzeko konponketa eta berrerabilera
SUSTENGATU

05

Lurraldeko bereizketa emaitzak
EMENDATU

02

Janari xahuketaren
KONTRA JO

01

Bio-hondakinen bereizketa
OROTARA HEDATU



06

Hurbileko balorizazio sailak
SORTARAZI

12

Jokamolde onen erabilera
AZKARTU

07

Lurraldeetan tokiko hautetsiak
INPLIKATU

11

Giza-baliabideen kudeaketa
OPTIMIZATU

10

Zerbitzu publikoaren gastuak
MENPERATU

09

Tokiko eragile ekonomikoen aldean
ENGAIATU

08

Herritarrak **AZKARRAGO** lagundu beren landare hondakinen murrizketa eta bereizketan